

BILBOK UCLGren BUREAU EXEKUTIBOAN PARTE HARTZEN DU, BILBAO BALIOEN HIRIA – BILBAO CIUDAD DE VALORES IZENeko ESTRATEGIA-PROIEKTUAREN ALDEKO APUSTUA INDARTZE ALDERA

- **'Bilbao Balioen Hiria – Bilbao Ciudad de Valores'** izeneko udal-ekimena berriki hautatu du UCLGk erakundearen "**Local4Action Hub**" plataformaren proposamenetako bat zuzentzeko proiektu gisa.
- **Bilbo Oihane Agirregoitia** Bilboko Udaleko Herritarren Arretako eta Partaidetzako eta Nazioarteko Gaietako zinegotziak ordezkatu du gaur Bureau Exekutiboan. Bureau Exekutiboa modu birtualean egingo da.

(*Bilbo, 2020ko azaroaren 12a.-*) Bilbok modu aktiboan parte hartzen du Bureau Exekutiboan, UCLGren (*United Cities and Local Governments*) Munduko Kontseiluaren esparruan, hots, munduko tokiko eta eskualdeko gobernuen erakunderik handienean. Bureau Exekutiboak, oraingoan modu birtualean egingo denak, bost kontinenteetako tokiko eta eskualdeko gobernuetako ordezkari instituzionalak bilduko ditu bi egunez.

Bilboko Udala Oihane Agirregoitia Bilboko Udaleko Herritarren Arretako eta Partaidetzako eta Nazioarteko Gaietako zinegotziak ordezkatu du, eta **Bilbao Balioen Hiria – Bilbao Ciudad de Valores** deritzon proiektu estrategikoa sendotuko du gaur arratsaldean. Proiektu hori UCLGk hautatu duen ekimen bat da, "**Local4Action Hub**" izeneko plataformaren proposamenetako bat zuzentzea xede duena.

Bilboko Udalak Hub hori gidatuko du, eta horren helburua balioetan oinarritutako gobernantza-sistema sortzea da; horretarako, hiriaren eta bertako herritarren balioen ezagutza sistemikoa abiaraziko du, balio partekatutak kontsultatuz eta kapitalizatuz. Lan horren helburua munduko programekiko loturak indartzea da, eta 17 baliotan oinarritzen da. Balio horiek, aldi berean, garapen iraunkorrerako 17 helburuak islatzen dituzte.

Hiribilduak Buenos Aires, Madril edo Erroma bezalako hiriekin partekatuko du lidergoa; hain zuzen ere, hiri horiek 2050erako karbono neutrala, metropoli-korridore berdeak eta hirientzako kultura bezalako gaiei buruzko esperientziak eta ezagutzak partekatuko dituzte, hurrenez hurren.

"**Local4Action Hub**" UCLGren ekimen berri berezia da, kideen eginera eta esperientzien artean garapen iraunkorrari buruzko estrategia sendotzea xede duena. Aukera desberdina eskaintzen du esperientzia baliotsuak elkarrekin konektatu eta toki arloan garatzen diren soluzioak gehiago hedarazteko bideak irekitze aldera.

UCLGren EZTABAIK ETA PROPOSAMENAK

UCLGren Munduko Kontseiluan, "Nazioarteko udal- eta eskualde-mugimenduaren eginkizuna COVID garaian" izenekoan, eztabaida politikoak egiten dira *UCLGren* Dekalogoak COVID-19 pandemiaren ondorengo munduarentzat funtsezkotzat jo zituen gaiei buruz: desberdintasunak, berreskurapen berdea eta zerbitzu publikoen finantzaketa.

Beste alde batetik, *UCLGren* Bureau Exekutiboa erakundearen Munduko Kontseiluaren proposamenei hasiera emateaz eta erabakiak gauzatzeaz arduratzen da, eta nazioarteko erakunde horren kudeaketa administratiboaz ere arduratzen da, nazioarteko foro nagusietan tokiko eta eskualdeko gobernuen bozeramaile gisa jarduten baitu.

BILBAO PARTICIPA EN EL BUREAU EJECUTIVO DEL CGLU PARA REFORZAR LA APUESTA POR EL PROYECTO ESTRATÉGICO *BILBAO BALIOEN HIRIA – BILBAO CIUDAD DE VALORES*

- La iniciativa municipal *Bilbao Balioen Hiria – Bilbao Ciudad de Valores* ha sido seleccionada recientemente por el CGLU como proyecto para liderar uno de los “*Local4Action Hub*” de la organización.
- El Ayuntamiento de Bilbao está representado hoy en el Bureau Ejecutivo que se celebra de manera virtual, por la Concejala de Atención y Participación Ciudadana e Internacional del Consistorio bilbaino, *Oihane Agirregoitia*.

(*Bilbao, 12 de noviembre de 2020.-*) Bilbao participa activamente en el Bureau Ejecutivo, en el marco del Consejo Mundial de CGLU (Ciudades y Gobiernos Locales Unidos), la mayor organización de gobiernos locales y regionales del mundo. El Bureau Ejecutivo reúne, en esta ocasión de manera virtual, a representantes institucionales de gobiernos locales y regionales de los cinco continentes durante dos días.

El Ayuntamiento de Bilbao está representado por la **Concejala de Atención y Participación Ciudadana e Internacional, *Oihane Agirregoitia***, quien reforzará esta tarde el proyecto estratégico de la Villa *Bilbao Balioen Hiria – Bilbao Ciudad de Valores*, iniciativa seleccionada por el CGLU como una de las propuestas para liderar la plataforma “*Local4Action Hub*”.

El Consistorio bilbaino liderará el *Hub* que tiene como objetivo generar un sistema de gobernanza basado en valores, mediante un conocimiento sistémico de la ciudad y de los valores de su ciudadanía, consultando y capitalizando valores compartidos. Una labor con el fin de reforzar los vínculos con los programas mundiales, basado en 17 valores, que reflejan los 17 objetivos de desarrollo sostenible.

La Villa compartirá liderazgo con ciudades como Buenos Aires, Madrid o Roma, que compartirán sus experiencias y conocimiento sobre temáticas como el carbono neutral para 2050, los corredores verdes metropolitanos o la cultura para las ciudades, respectivamente.

“*Local4Action HUB*” es la nueva iniciativa insignia de CGLU para consolidar la estrategia sobre desarrollo sostenible entre las prácticas y experiencias de los miembros. Ofrece una oportunidad diferente para conectar las experiencias valiosas y abrir el camino hacia una mayor difusión de las soluciones que se desarrollan a escala local.

DEBATES Y PROPUESTAS DEL CGLU

Durante el Consejo Mundial del CGLU, titulado “El papel del movimiento municipal y regional internacional en tiempos de COVID”, se celebran diversos debates políticos sobre

las cuestiones que el Decálogo de *CGLU* identificó como claves para el mundo posterior a la pandemia del COVID-19: las desigualdades, la recuperación verde y el financiamiento de los servicios públicos.

Por su parte, El Bureau Ejecutivo de *CGLU* es el responsable de iniciar las propuestas y llevar a cabo las decisiones del Consejo Mundial de la organización y se encarga de la gestión administrativa de esta organización internacional, que actúa como portavoz de los gobiernos locales y regionales en los principales foros internacionales.